


1. BALIO PROPOSAEA

Gure enpresak asetzen duen behar nagusia hau da; erabiltzaileak festetan daudenean ze diskoteka edo taberna aukeratu behar duten haien nahien arabera adierazten du aplikazioak, horrela denbora aurrezteaz gain, zure leku egokia aukeratzen laguntzen dizu. Alde batetik, diskoteka edo taberna bat aukeratzeko garaian erraztasunak eskaintzen ditu, esate baterako, askotan festan ateratzerakoan ez dakizu zer entzun nahi duzun, orduan, tabernaz taberna joan behar duzu gau horretan entzun nahi duzuna aurkitzeko eta denbora gehiago pasatzen duzu taberna kanpoan musika entzuten baino. Ondorioz, denbora galera handia suposatzen du. Aplikazio honekin bete nahi dugun helburua zera da: denbora galera hori saihestu gaua ahalik eta gehien aprobetxatuz eta disfrutatuz.



Beste aldetik, funtzio sozial edukiko luke, hau da, zuk bakarrik ateratzen bazara zure lagunak ez dutelako atera nahi aplikazio honekin zure gustuko musika gustuko duten pertsonak ezagutu ahalko dituzu eta horrela lagun berriak egitea erraztuko zaizu beraz sozialki integratzeko baliagarria izan daiteke.

Bi aplikazioen bat egitea da gure ideia; google maps eta spotify. Horrela, erabiltzaileak festetan daudenean denbora aurrezteko eta haien gustuko musika dauden tabernak adierazita izango dituzte.

Gure iritziz, nahiko aurrerapen handia egiten ari gara, nahiz eta aplikazioak asmatuta egon, guk zerbait berria eskaintzen diegu erabiltzaileei bi aplikazio oso ezagunen ezaugarri nagusietaz baliatuz. Hala nola, google maps-en tabernen kokagunea adierazten ditu eta spotify-en abestiak eskainiko ditu; horren elkarketak taberna bakoitzak duen musika zerrenda adieraziko die erabiltzaileei eta horrela lagunduko die ze taberna aukeratu haien musika gustuen arabera denbora aurreztuz.

Bereziki, bezero konkretu batzuen beharretara egokituta dago; gazteak, hala ere edonork deskarga dezake aplikazioa. Gazteak adibidez, ez dira ordaintzeko prest egongo, beraz, aplikazioa google play-tik dohainik izango da, instagram-a bezala, deskargen kuantitateen araberakoa, hau da, zenbat eta deskarga gehiago eduki orduan eta diru gehiago irabaziko da.

Bi zerbitzuen errendimendua hobetzea, balioa sortzeko modu ohikoenetako bat izan da. Baina zenbait kasutan, errendimenduan ematen den hobekuntza, eta honek eskarian duen eragina, ez da proportzionala

